

HAZI FUNDAZIOAREN ETA AZPEITIKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA, AZPEITIKO AZOKA PLAZAN, LEHEN SEKTOREAREN LEHIAKORTASUNA BULTZATZEKO ETA LANDA NAHIZ ITSASERTZEKO INGURUNEA BERRINDARTZEKO

Azpeitian, 2017ko urtarrilaren 3an.

BILDU DIRENAK

Eneko Etxeberria Bereziartua jauna, NA 35773722-M zk. duena, Azpeitiko Udalaren izenean eta ordezkari gisa, horren helbidea Azpeitiko Enparantza Nagusia, 5 (Gipuzkoa) eta I.F.K. P-P2001900F izanik.

Asier Arrese jauna, NA 35.776.412-G zk. duena, Hazi Fundazioaren izenean eta ordezkari gisa, horren helbidea Muntzaratz Dorretxea, Muntzaratz Auzoa, 17-A, Abadiño (Bizkaia) eta I.F.K. G-48986137 izanik

Alderdiek ekintza honetan parte hartzeko behar adinako gaitasuna dutela aitortzen diote elkarri eta lankidetzak-hitzarmen hau izenpetzen dute, eta horrekin bat etorritik,

ADIERAZI DUTE

I.- Azpeitiko udalak, lehen sektorea ondo zaintzeko konpromisoa hartu du, behar bezalako arreta eta zerbitzuak eskainiz eta landa eremuko enplegua sustatuz. Hartara, "Azpeitiko Elikadura Gobernantzarako Plana" (Elikagai Onen Plana) adostea helburu duen aholku-emaile eta kontsultarako eta elkarkidetzan oinarritutako proiektuak sustatzeko, "Azpeitiko Elikadura Mahaia" batzordearen sorrera bultzatu du.

Azpeitiko Elikadura Gobernantzarako Planak (Elikagai Onen Plana), herri politika osatzen duten arau, programa, ekimen eta proiektuak, herritarren bizi kalitaterako funtsezkoak diren elikagaiak sustatzera bideratzea du helburu: osasuntsuak, zaporetsuak eta arrazoizko prezio izateaz gain, naturarentzat, langileentzat eta tokiko ekonomiarentzat onak diren euskalerriko lehen sektoreak ekoiztutako elikagaiak bultzatzea. Azpeitiko Elikadura Gobernantzarako Planak bi erronka (eta hamar helburu ditu): *Tokiko elikagaien eskualdeko eskaria sendotzea eta Tokiko elikaduraren eskaintza nahikoa eta erregularra garatzea.*

Elikagai Onen eskaintzaren eta eskariaren arteko erlazio egonkorra eta asebetegarria lortze aldera, Azpeitiko azoka plazako ekipamendua izango da tokiko elikadura estrategia garatzeko abiapuntua, bertan eskuragarri izango ditugu eta bertako, Euskalerriko, elikagaiak.

II.- Azpeitiko udalbatzak, 2014ko martxoaren 11n egindako bilkuran Plaza Nagusiko herri jabariko azoka plazako eraikina eraberritzea onartu zuen.

Azken hilabetetan Urolako Lapatx Zabortegiak eraikuntzaren eraberritze lanak burutu ditu, bai teilatuan eta baita lehen solairuan ere, eta orain Udala beheko solairua eraberritzeko lanetan ari da. Hain zuzen ere, proiektu teknikoak Azpeitiko azoka plazaren behe solairuaren itxiturak aldatu eta suteei eta irisgarritasunari dagokionez indarrean den araudira egokitzeko lanak burutzeko lanak jaso ditu, eta baita azokaren kanpoaldean zenbait hiritartze lan ere.

Obrak amaitu bitarte honetan, gainera instalazioan emango diren erabilerak (erosketa eta heziketa guneak) zehaztuko dira Azpeitiko Elikadura Gobernantzarako Plana kontutan hartuta.

III.- Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren tresna den Hazi Fundazioaren helburua eta sorrerako xedea da lehiakortasuna, iraunkortasuna eta berrikuntza bultzatu, sustatu eta garatzea bere jardura eremuan, hau da, lehen sektorean (nekazaritza, abeltzaintza, arrantza eta basogintza), landa eremu eta itsasertzean eta elikagaien industrian, horien balorizazioan eta natur eta kultur ondarea mantentzen laguntzeko.

Bereziki, eta jardura zehatz garrantzitsu gisa, Fundazioak ondorengo jarduerak burutzen ditu fundazioaren helburu hori erdiesteko:

1. Euskadiko elikadura-produktuen kalitatearen bereizgarriak kudeatu eta sustatzea.
2. Euskadiko elikagaiak sustatzeko eta horiei buruzko informazioa emateko era guztietako jarduerak burutzea.
3. Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren sektorea, baita Euskadiko Elikadura Industria ere, Babestu eta Sustatzea kalitateko ekoizpena sustatuz.
4. Kalitateko elikagaiak merkaturatzearekin loturiko hitzarmenak eta jarduerak egin daitezela sustatu eta bultzatzea.
5. Euskadiko elikagaien gainean ziurtaginaren eta kontrolerako sistemak finkatu eta aplikatzea, ezarritako araudia bete dadila bermatzea ahalbidetuz.
6. Nekazaritzako industria-jardueren arloan eta nekazaritzako elikagaien kalitatearenean erakunde eta entitate publikoekin elkarlanean aritzea.

V.- Bi erakundeek, NIREAren helburuak partekatzen dituzte, programa horren zeregina izanik ekosistema mantentzea eta landa eta itsasertzeko ingurunearen garapen iraunkorra sustatze, ingurune horrek Euskadiko garapen ekonomiko eta soziala orekatua izaten laguntzen duela aitortuz eta euskal gizartearen konpromisoa bultzatuz. Bi erakundeek (nirea agente sustatzaileak), erantzukidetasunaz eta lankidetzan, lehen sektorearen eta landa eta itsasertzeko ingurunearen garapen iraunkorra sustatze laguntzen duten proiektu etaa ekimak elkarrekin bultzatu, lagundu eta ikusgarri egingo dituzte Azpeitiko azoka plazan.

VI.-Bi erakundeek, bakoitza bere arloan eta sareko lanaren bitartez euskal gizartea gure landa eta itsasertzeko ingurunearekin erantzunkide izan dadin lagunduko dute eta interesa adierazi dute Azpeitiko azoka plazaren erabilerak zehazteko eta bertako lehen sektorearen lehiakortasuna bultzatzeko behar diren ekintzak edo jarduerak bideratzeko, bai asesoramendu, formazio edota arlo ekonomikoan ere, eta horregatik, erabaki dute honako lankidetza hitzarmen hau bideratzea, ondorengo baldintzekin bat etorritik.

VII.- URKOME, Urola Kostako Landa Garapeneko Elkarteak, bidelagun izango da hitzarmen honen helburuak aurrera eramaterako orduan. 3 erakundeen arteko kolaborazioan oinarrituko da jarduna.

BALDINTZAK

LEHENENA.- Hitzarmenaren objektua

Azoka plaza esparru bikaintzat jotzen da sentsibilizazioa bultzatzeko gure landa eta itsasertz ingurunea bizirik mantentzeko buruz, eta Euskadiko Kalitatezko produktua sustatzeko eta balioztatzeko.

BIGARRENA.- Hitzarmenaren helburuak.

Hitzarmen honen xedea da, Hazi Fundazioaren eta Azpeitiko Udalaren arteko lankidetza antolatzea, Azpeitiko azoka plazan ondorengo helburuak lortzeko beharrezkoak diren proiektu eta ekimenak martxan jartzea:

- a) Ustiatzearen iraunkortasuna eta lehiakortasuna hobetzea
- b) Ekoizleen balioa areagotzea
- c) Negozio aukera berriak sortzea
- d) Lortzea euskal gizarteak onartzea landa eta itsasertzeko inguruneak Euskadiren zaintzan eta garapenean duen zeregina (landa ingurunea eta hiri ingurunea elkar hurbiltzea)
- e) Bertako produktuen eskaera eta kontsumoa handitzea

BIGARRENA.- Hitzarmenaren lankidetzak esparruak.

Azoka plazan, lehen sektorearen lehiakortasuna bultzatzeko eta landa nahiz itsasertzeko ingurunea berrindartzeko ekimenaren baitan zehaztuko diren ekintzak esparru hauetan emango dira:

A. Basque Label eta saltoki iraunkorra

Azoka plaza, elkarlanean eraikiko dugun topagune bizia izango da, produktuak eta proiektuak ezagutarazko eta merkaturatzeko erabilera anitzeko gune herrikoi multifuntzionala.

Azoka plazako erosketa gunean, "Gure lurra, gure platera" herri konpromisoan oinarrituta, Azpeitiko azoka plazan, soilik 150km-ren bueltan ekoiztutako %100 Euskalerriko elikagaiak salduko dira, inguru hurbilean eragin positiboa sortuz, herritarrei bertako kalitatezko elikagai osasuntsuak eskainiz.

Udalak, "Basque Label" markan oinarrituta, azoka plazako eraikinaren hegoaldeko erpinean aurreikusia dagoen eskailera-zulo berriaren ondoan arrandegi, harategi, obradore - plater prestatu eta janari-denda postu finkoen erosketa gunea aurreikusi du. Erosketa guneak, Basque Labeleko baldintzak beteko ditu eta lan horretan, Hazi fundazioaren asesoramendua izango du.

Udalaren gain izango dira BASQUE LABEL programaren baldintzak betetzeko egokitze lanak exekutatzeke kontratazio espedientea tramitatzea, eta horretarako gaitasun berezia duen enpresa baten laguntza izango du.

HAZI fundazioaren asesoramenduan jasotako erizpideak betetzea beharrezkoa izango da.

B. Baserritarren Azoka markaren erabilera sustatu

HAZiren helburua da aurrera begira Baserritarren Azoka marka erabiltzea herrietako eta gertuko produktuak merkaturatzeko. Azken batean, Baserritarren azoka beti joango litzateke Azpeitiko Azokaren logoari lotuta. Alegia, eiteketa eta euskarrietan Azpeitiko logoaren eta sortu berri den Baserritarren Azokaren logoaren arteko Cobrandinga egingo da.

Hortaz, Azpeitiak konpromisoa hartzen du proiektu hau ere bere esparruan gauzatzeko; eta bide horretan, markaren eskuliburuan agertzen diren baldintzetan oinarrituta egingo da markaren erabilera.

C. Enplegurako prestakuntza

Enplegurako Prestakuntza, Hazi fundazioak, nekazaritza-sektoreko profesionalen eta nekazaritzako elikadura enpresen eskura jartzen duen tresna da.

HAZiren Enplegurako Prestakuntza programa honek, Azpeitiko eskualdeko lehen sektoreko, elikadura-sektoreko eta landa-inguruneke lehiakortasuna eta iraunkortasuna hobetzea esparru teknikoan zein kudeaketa-esparruan enpresei modernizatzen eta erronka berrietara egokitzen lagunduko die.

Ekintza honen baitan izango dira, eskualdeko landa inguruneke biztanleek duen jakintza eta formazioa hobetzeko teknikak garatzea eta eskaintzea, eta batik bat, eremu horietako emakumeen eta gazteen prestakuntza eta trebakuntzak lehentasunez bultzatuz.

Udalak, azoka plazako espazioa gordeko du enplegurako prestakuntza ikastaroak gauzatzeko. Ikastaroek kosturik izan ezean, Azpeitiko Udalak matrikula ordainduko die Azpeitiako bizilagunei.

HIRUGARRENA.- Alde bakoitzaren konpromisoak eta finantziazioa.

Azoka plaza proiektuaren bihotzean, eskualdeko jendartearen ongizatea bilatzeko eta landa eremuko ondare komunari ekarpen bat egiteko konpromisoa dago; komunitateak babestutako hurbileko landa-eremuetako herritarren nekazaritza aktibitate ekonomikoa helburu, bertako elikadura eta kontsumo sozialaren espazio kolektibo ekintzailea gauzatzuz, hurbileko landa-eremuetako landa postuen sorrera ahalbideratuz.

Euskal lehen sektorearen lehiakortasuna, ekoizpen bolumenak, ekoizpen kostuek eta produktua-merkatua bikotearen kudeaketak duten bilakaeraren menpekotasunaren aurrean, bolumen txikia duen eta atomizatua dagoen gure sektore honek, herritarren eta erakundeek laguntza behar du etorkizunari ilusioz aurre egin ahal izateko.

Gutako bakoitzak, gure erabaki eta ekintza txikien bidez (erosteko ohiturak, etab.), zuzenean eragiten dugu gure inguruneke eredu ekonomiko, sozial eta kulturean. Hartara, sektorea bizirik mantentzeak duen garrantziaren inguruko informazio eta sentsibilizazioa gure gizartean hedatzeaz gain, elikagaien ekoizpen egokia ahalbideratzea eta elikagai horiek gure eguneroko elikaduran modu praktikoan txertatzeko, ekintzak gauzatzeko ditugu "Jalgi hadi azoka plaza agenda"-ren baitan:

- Pertsona orok informazioa, formakuntza eta baliabideak eskura ipini, bere kabuz tokiko elikagaiak ekoiztu, erosi, sukaldatu eta gozatu dezan

- Ekoizleen produktu eta proiektuen aurkezpenak (showroom, showcooking) eta herriarren babes erosketak bultzatzea (crowfarming)
- Elikadura-produktuen kalitate bereizgarrien gaineko ziurtapen eta kontrol sistemen azalpena, kontsumitzaileen, ekoizleen eta gainerako eragileen artean konfiantza sortzea.
- Lehen sektorea eta landa eta itsasertzeko ingurunea suspertzearen alde diharduten sektore, lurralde eta gizarteko agenteen hitzaldiak eta, aurkezpenak
- Euskal Baserritarren Azokaren garapena Azpeitian. Cobrandinga eta marka berriaren erabilera,
- Azoka bereziak eta herri bazkariak euskalerriko lehengaiekin egindakoak
- Nirea mugimenduaren topagune multifuntzionala. Eragile ezberdinen artean elkarlana bultzatzeko erabilere anitzeko topagunea
- Tokiko elikagaigintzaren sustapena eta elikagaiak herrian hornitzeko eta banatzeko sistemen hobekuntza: ekoizpen, merkaturatze eta kontsumoko zirkuitu laburrak. Herriko merkataritza bizirik mantentzea, bertako saltoki eta horeca kanaleko enpresei lagunduz. Jatetxeen laguntzarekin hurbileko landa-eremuetako elikagaiak balioan ipintzeko ekimenak
- Baserritarrek gidatutako esperientzia turistikoa eta kulturalak. Azoka plazatik abiatutako ustiategi eta obradoretara bisitak
- Eskola osasuntsuak bultzatzea, tokiko elikagaien ezagutza eta kontsumoa sustatuz
- Sektore guztien berdintasun sozial eta ekonomikoa bertako elikagaiak eskuratzeko orduan (gizarte mugimenduak)
- Elikagaiak ekoizteko, transformatzeko, banatzeko eta ezartzeko moduak, naturan duen efektua aztergai dituzten ekimenak: elikagai gehiago alferrik ez galtzeko, biodibertsitatea babesteko eta klima-aldaketaren ondorioak murrizteko eta ondorio horietara egokitzeko printzipioen azalpena
- Elikadurarekin lotutako hondakinen murrizketarako ekimenak

Udalak, herri mugimenduen parte hartze organoa den "Azpeitiko Elikadura Mahaia"-k behar dituen baliabideak jartzeko konpromisoa hartuko du, bere arduraren dauden espazioak ekimen horietara bideratzeko. Horrez gain, hitzarmen honen helburuak betetzeko behar diren gainontzeko espazioak (aretoa, bulegoa...) bere gain hartuko ditu, ofizinalako gastuak barne.

HAZIk 15.000 euro jarriko ditu hitzarmenaren helburuak bete daitezen. HAZIk Azpeitiako udalari %50 ordainduko dio hitzarmena sinatutakoan, eta gainerakoa udalak egiaztapen txostena aurkeztutakoan ordainduko da.




LAUGARRENA.- Hitzarmenaren Jarraipen Batzordea.

Hitzarmenaren Jarraipen Batzorde bat eratu da, ondoko kideek osatua:

- Hazi Fundazioko ordezkari bat, edo ahalmen hori eskuordetuko zaion pertsona bat.
- Azpeitiko udalaren ordezkari bat edo hura eskuordetzen duen pertsona.

Batzorde horren ardura izango da bi erakundeek beren gain hartutako konpromisoak ebaluatzea eta horien jarraipena egitea, interpretazio-arazo zehatzak konponduz, jarduera-irizpide batzuk finkatuz eta bi erakundeetako erabakitze-organismoek jakinaraziz.

BOSGARRENA.- Ez betetzea.

Bi erakundeetatik edozeinek hemen adierazitako konpromisoak ez betetzea Hitzarmena deuseztatzeko arrazoi izango da.

SEIGARRENA.- Iraupena.

Lan-hitzarmen honen iraupen 2016-2017 urtetako izango da, nahiz eta bi aldeetako edozeinek hitzarmen hau aldeaz aurretik amaitutzat jo ahal izango duen, beste aldeari hilabete lehenago jakinaraziz gero.

Eta Lankidetzak Hitzarmen honen edukiarekin ados daudela frogatzeko, bina kopia sinatzen dituzte burualdean adierazitako lekuan eta egunean.

hazi
Granja Modelo s/n
01192 Arkautz Araba
T 945 003 240 F 945 003 290
hazi@hazi.eus
www.hazi.eus

Asier Arrese Zabala

Hazi Fundazioaren aldetik

Eneko Etxeberria Bereziartua
Azpeitiako udalaren aldetik

